barriek

HURRENGO ERAKUSKETA

Jorge Isla
2026ko azaroak 24 – 2027ko urtarrilak 24

2026ko irailak 8 – azaroak 22

Maider Aldasoro

ORDUTEGIA
Asteartetik larunbatera 11:00 - 15:00 / 16:00 - 20:00
Igande eta jai egunetan 11:00 - 15:00
Astelehenetan itxita

EUSKARA

Iparraguirre 21
48009 Bilbao
T. +34 94 406 85 32

salarekalde.bizkaia.eus
salarekalde@bizkaia.eus
@rekaldearetoa

Bizkaia
rekalde aretoa

rekalde

Maider Aldasoro

Arte Ederretan graduatua EHUn, Erasmus egina Norwich University of the Arts-en (2013), eta Arte eta Sorkuntzako Ikerketako Masterra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Egonaldiak egin ditu Paradise Air-en, Tokion, Ertibil Bizkaia 2023 programaren barruan eta bigarren saria jasota; Bilboko Azkuna Zentroan eta BilbaoArte Fundazioan. Banakako erakusketak egin ditu, hala nola *Hiru iltze hatz haten*, ANTI Liburudendan (2025), *Axila, que robo sobaco*, BilbaoArte Fundazioan (2023), *Flexy my Tether*, Art Lacuna-n, Londres (2022), B.A.C.E project-en esparruan, eta *Aurrean Goxo*, Azkuna Zentroan (2021).

Praktikan, batera nahasten ditu jantzien sorkuntza, pertsonaien garapena, bideoa eta eskultura, bitarteko nagusi gisa. Praktika horiek uztartzen ditu, eta sortzen dituen atmosferetan gorputza, onirikoa, teatrala eta ludikoa nahasten dira. Sexualitatea, jolasa eta botere-harremanak jorratzen ditu, besteak beste.

Rekalde Aretoak MAIDER ALDASOROren erakusketa aurkezten du, barriek programa barruan. Programa horrek ikusgai jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-arteen bekez gozatu duten artisten aukeraketa bat.

Hemen, lerro hauen gainean, eta bidali zenidan kanta entzunez, bizitza beste erritmo batean doa. Hemen, lerro hauen gainean, idatzi nahi nizuke esaten nizun gustuko leku horretatik, mingainaren trebetasunaz, baia horren zurtoinarekin korapilo bat egitea lortu zenuela esaten zenidanean bezala.

Gorputzak, berak osorik eta une oro, bere gogoz kontra ere, adierazten du. Ondotxo dakigunez, norberaren «*body*»arekiko harremana beti abiatzen da konstruktu sozial batetik abiatutako harreman saihestezinetik. Ezarritako forma zatikatu behar da eta material filiformea izan: moztu, desegindakotik zerbait berriz batu ahal izateko.

Hor, ekintza horretan, norberarena den zerbait kokatzen da, interpretatzen da eta desafio egiten zaio, eraldatzen da. Zirkulazioan dagoen gorputz bat da, ekiteko gai dena. Ordenatzeko eta munduan egoteko beste modu bat da.

Sentitzen dut gainazal batekin tematzen den gorputz hori igarotzeko atalase bat sortzen ari dela, hezurra eta haragia jada ez baitira neurrira egindako jantzi bat besterik. Zurtoinak beti eusten dio. Gorputza irudikatu egiten da.

Horrela, domeinu horretara (*demonio* horretara) sartzeko –edo handik ateratzeko– igarobidea beste gauza bat da. Leku horrek bereizketa egiten du elkartuz, muga zikin batek egiten duen bezala. Jantzi berria deskribatutakotik eta asmatutakotik ateratzeko mintza da.

Narratiba multifazetiko bat da zurea, gurea. Denboren gainjartze bat –gurutzatze bat– nirea, zurea. Analepsi bat eta multibertso emozional bat, alegia bat gurea.

Ez da sentsazio bat, leku bat da berriz. Leku komun bat. Lan egiteko estadio bat. Espazio hori –taupadaka baduzu– *Via Magenta* deitu daiteke. Edo agian *Puerta Lima* ere bai.

Eta zeure buruari galdetuko diozu, eta gero zer? Lasai, gero...

Gerezi hori!

Mikel Ruiz Pejenaute